d·bus
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

Espediente zk.: 14/23

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAU-RI AUTOMOZIOKO GASOLIOA (A KLASEA) ERREGULARTASUNEZ HORNITZEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITUKO DEN KONTRATUAREN ESPARRU AKORDIOA ARAUTUKO DUENA

1. Esparru akordioaren aurrekariak eta xedea

1.1. Aurrekariak:

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAU Donostiako Udalaren bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa da, eta hiri garraioko zerbitzu publikoa ematen du hiri horretan. Garraio publiko hau 95.000 erabiltzaile inguruk erabiltzen dute egunero, hiriko joan-etorrietan.

Gaur egun, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUren flotak 141 autobus ditu, eta horietatik 137 autobusek urtean 3.500.000 litro gasolio kontsumitzen dituzte gutxi gorabehera, gainerakoak autobus elektrikoak baitira. Ondorio horietarako, **automozioko gasolioa (A klaseko gasolioa)** erregulartasunez hornitu behar da.

Hornidura horren bidez, asmoa da DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUren jabetzako deposituek une oro izatea ezaugarri horiek dituzten erregai erreserba nahikoak, konpainiaren ibilgailu flotak hiriko hiri garraioko zerbitzu publikoa behar bezala emango dela bermatzeko.

1.2. Kontratuaren xedea

Prozedura honen xedea da DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUri erregaia hornitzeko gai den enpresari batekin edo batzuekin esparru akordio bat sinatzea, eta hornidura horretarako baldintza jakin batzuk ezartzea, ondoren enpresari horien artean esleitzeko esparru akordio horretan oinarritutako kontratu zehatzak.

Kontratuaren xedea honako CPV honekin bat dator: 09134000 -7 (gasolioak)

Automozioko gasolioak (A klasea) urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuan adierazitako zehaztapenak bete beharko ditu (61/2006 Errege Dekretua, urtarrilaren 31koa, Gasolinen, Gasolioen, Fuel-olioen eta Petrolioaren Gas Likidotuen Zehaztapenak zehazten dituena eta Bioerregai Jakin Batzuen Erabilera arautzen duena), edo Errege Dekretu hori ordeztu lezakeen araudian ezarritakoak.

Era berean, automozioko gasolioak (A klasea) homologatuta egon beharko du, eta UNE-EN 590 Arauan araututako automozioko entseguetarako baldintzak eta metodoak bete beharko ditu, dagozkion eguneratzeekin.

Administrazio Baldintza Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiri honek (aurrerantzean, Agiria edo AKPA) kontratu izaera du, eta esparru akordioaren harpidedunek sinatu beharko dute kontratua formalizatzeko egintza berean.

2. Araubide juridikoa eta jurisdikzioa

2.1. Esparru akordioari buruzko araubide juridikoa

Esparru akordioa, bere prestaketari eta esleipenari dagokienez, Agiri honek arautuko du, eta, Agirian aurreikusita ez dagoenerako, presako neurri buruzko otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren xedapenek arautuko dute. Errege Lege Dekretu horren bidez (aurrerantzean, RDLSE), Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dira sektore batzuetako kontratazio publikoari, aseguru pribatuei, pentsio plan eta pentsioei, tributu eremuari eta auzi fiskalei buruzko Europar Batasuneko zenbait zuzentarau.

Ondorioei, betetzeari eta iraungipenari dagokienez, esparru akordioa Agiri honek eta izenpetzen den esparru akordioak berak arautuko dute, eta, horietan aurreikusi gabe dagoenari dagokionez, RDLSEn eta zuzenbide pribatuko arauetan ezarritako arauek arautuko dute.

Horrez gain, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa (aurrerantzean, SPKL) eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Agiri honetan berariaz testu horietara eramaten duen guztian baino ez da aplikatu beharko.

Gaia dela eta, esparru akordioari gasolinei, gasolioei, fuel-olioei eta petrolioaren gas likidotuei buruzko araudi sektoriala aplikatuko zaio, baita aplikatzekoa den gainerako araudia ere.

2.2. Esparru akordioari buruzko Jurisdikzio eskuduna

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena lizitazio honen garapenari eta, oro har, esparru akordioaren prestaketa eta esleipen faseari buruzko auzigaiak ebazteko, bai eta aldaketei dagokienez ere, azken horien aurkaratzea RDLSEren 110. eta 111. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean.

Hala badagokio (prestaketari eta esleipenari dagokienez), RDLSEren 119. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen den erreklamazioa jarriko da artikulu horietan aurreikusitako baldintzetan, erreklamazioa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoan.

Jurisdikzio zibila izango da esparru akordioaren ondorioekin, betetzearekin eta amaitzearekin lotuta alderdien artean sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko eskumena izango duena.

Esparru akordioa buruzko auzirik egonez gero, alderdiak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikziopean jarriko dira.

2.3. Araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna, esparru akordioan oinarrituta esleitzen diren kontratuei dagokienez

Esparru akordioan oinarrituta esleitzen diren kontratuei esparru akordioari dagozkion arau berberak aplikatuko zaizkie, araubide juridikoari eta prestatzeari, esleipenari, ondorioei, betetzeari eta amaitzeari dagokienez, eta berezitasun honekin: agiri honetaz gain, sinatzen den esparru akordioa bera aplikatuko da, bai eta DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUk kontratu oinarrituak esleitzeko esparru akordioa izenpetu duten enpresariei igortzen dizkien eskaintza ekonomikoen eskaerak eta aukeratutako enpresariak egindako eskaintza ekonomikoa ere. Dokumentu horietan aurreikusten ez den guztian, kontratuak RDLSEn ezarritako arauen arabera arautuko dira.

SPKL kontratuei aplikatuko zaie soil-soilik agiria arau horretara espresuki bidaltzen den guztian.

Kontratuak, halaber, horniduraren xedearen izaeraren arabera aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera arautuko dira.

Jurisdikzioari dagokionez, kontratuei esparru akordiorako 2.2 baldintzan aldez aurretik ezarritakoa aplikatuko zaie, eta RDLSEn kontratu horien zenbatekoaren arabera aurreikusten denarekin bat.

3. Entitate kontratatzailea eta kontratazio organoa

Erakunde kontratatzailea DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAU da (aurrerantzean, DTK), eta konpainiako zuzendari kudeatzailea da esparru akordioa egiteko eskumena duen Kontratazio Organoa.

DTK-ko zuzendari kudeatzailea da esparru akordioan oinarrituta egiten diren kontratuak egiteko Kontratazio Organo eskuduna.

Nolanahi ere, DTKn ahalordetzeetan eta organoetan gerta daitezkeen aldaketei erreparatu beharko zaie, une bakoitzean kontratatzeko eskumena kontuan hartuta, zuzenbide pribatuko arauen arabera.

4. Esparru akordioaren indarraldia

Esparru akordioak bi urteko indarraldia izango du, 2024ko otsailaren 20tik hasita, eta bi urte horien ondoren luzatu ahal izango da urtez urte, gehienez 5 urte egin arte (hasierako urtea eta egon daitezkeen luzapenak zenbatuta).

Luzapenen erregimenari dagokionez, DTK-k aldebakarreko erabakiak hartuko ditu haien gainean, eta esparru akordioa izenpetu duten enpresariek dagokion jakinarazpena jasotzean luzapenak formalizatutzat joko dira. Jakinarazpena, berriz, gutxienez hasierako aldia edo unean uneko luzapen aldia bukatu baino hilabete bat (1) lehenago jasoko du.

5. Esparru akordioaren balio zenbatetsia

Esparru akordioaren balio zenbatetsia, haren iraupen osorako (balizko luzapenak barne), 24.908.000 eurokoa da, BEZa sartu gabe.

RDLSEren 4.13 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, balio zenbatetsi hori kalkulatzeko, esparru akordioaren iraupen osoan aurreikusitako kontratu guztien balio maximo zenbatetsia hartu da kontuan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta.

Agiri honetan zenbatetsitako balioek ez dakarte, inola ere, DTK-k gutxieneko gastu konpromisorik, eta esleitutako kontratu oinarrituak gauzatzeko benetan emandako hornidurak soil-soilik ordaintzeko betebeharra sortzen dute.

6. Horniketa egiteko lekua

Hornidura DTKren egoitzan entregatuko da (Fernando Sasiain kalea, 7, Donostia), DTKren deposituetan, DTK-k kontratu oinarritu bakoitzerako igortzen duen eskaintza ekonomikoaren eskaeran adierazitako egunean eta orduan.

7. Kontratatzeko gaitasuna

Esparru akordioa egiteko aukera izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta hautaketa kualitatiboko irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen badute, Agiri honen **1. eranskinean** xedatutakoaren arabera.

Ezingo dute parte hartu esparru akordioa prestatzeko zehaztapen teknikoak edo dokumentuak egiten parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia askea murriztea eragin badezake edo gainerako enpresekiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Pertsona juridikoak soilik izan daitezke kontratuaren esleipendun baldin eta, beren Estatutuen edo sortze arauen arabera, Esparru akordioaren prestazioak haiei dagozkien helburu, xede edo jarduera esparruaren barruan badaude.

Enpresariek esparru akordioaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eskatu ahal zaion gaikuntza profesionala edo enpresariala eduki beharko dute. Zentzu horretan, **lizitatzaileek petrolio produktuen handizkako operadoreen jardueraren hasiera jakinarazita eduki beharko dute Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, aplikatzekoa den araudi sektorialean jasotako baldintzetan.**

DTKrekin kontratua egiteko ahalmena izango dute, beti, Europar Batasuneko estatu kideetakoak diren eta kokatuta dauden estatuko legeen arabera prestazioa emateko gai diren enpresa ez-espainiarrek.

Enpresok kokaturik daudeneko Estatuko legeek enpresa horiei kasuan kasuko zerbitzua eman ahal izateko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen dietenean, eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Aurkeztutako dokumentazioarekin batera, Europar Batasuneko kide ez diren pertsona fisiko edo juridikoek justifikatu egin beharko dute, Espainiako Misio Diplomatikoaren txostenaren bidez, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak enpresa espainiarrak ere onartzen dituela Administrazioarekiko eta SPKLaren 5. artikuluan zerrendatzen direnen pareko ente, entitate eta erakunde publikoekiko kontratazioetan.

Esparru akordioa eta DTKrekin kontratua egin ahal izango dituzte aldi baterako eta berariaz eratzen diren enpresari elkarteek, kontratua beraien alde esleitu arte elkartea eskritura publikoaren bidez formalizatu beharrik gabe.

Lizitatzaileek honako ahalmen ekonomiko-finantzario hau dutela egiaztatu beharko dute:

- Automozioko gasolioaren (A klasea) hornidura erregularraren esparruan, gutxienez 7.472.400 euroko negozio bolumena izatea, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako (urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dutenak) ekitaldirik onenari dagokionez, betiere lizitatzailearen eratze dataren edo lizitatzaileak jarduerak hasi zitueneko eta eskaintzak aurkeztu zitueneko dataren arabera.

Aipatutako ahalmena eta/edo aipatutako gutxieneko giza baliabide jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen ahalmenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, notarioaren aurrean emandako idazkia aurkeztu beharko dute (**3. eranskinean** jasotako ereduaren arabera). Idazki horretan, inplikatutako enpresek honako hau adierazi beharko dute: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintza guztiak osorik ezagutzen dituztela; badaukatela aipatutako ahalmena, hori egiaztatzeko dokumentua erantsiz (**1. eranskinean** aurreikusitako eran);eta erabateko borondatea dutela lizitatzailearen esku jartzeko, bera bada esleipenduna, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak (berariaz onartuz Kode Zibileko 1257.2 artikuluan xedatutakoa, erakunde kontratatzaileak

ordezkapena edo aldaketa berariaz baimendu beharko duelarik). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da DTK-k aipatu konpromisoa onartzea, dagokion lizitatzailea esleipenduna ateratzen bada.

Ahalmen ekonomikoa eta finantzarioa **1. eranskinean** ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da.

8. Publizitatea

Lizitazio hau eta esparru akordioaren formalizazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta DTKren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, RDLSEren 78. eta 79. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, hurrenez hurren.

Esparru akordioaren esleipena DTKren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esparru akordio batean oinarritutako kontratuen esleipena hogeita hamar egunen barruan argitaratuko da, kontratu horiek esleitu diren hiruhilekoa amaitu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, RDLSEren 79.3 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Horrez gain, kontratazio organoak esparru akordioan egitea erabakitako aldaketak, hala badagokio, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean edota kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, RDLSEren 112.1. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da RDLSEren 74. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

DTKren kontratatzailearen profilean sartzeko, https://www.dbus.eus/es/otros-servicios/perfil-contratante/ web orria edo Euskadiko Kontratazio Plataforma (http://www.contratacion.euskadi.eus) erabili ahal izango da.

9. Bermea

Esparru akordioaren esleipendunek, bai esparru akordioan bai lehenengo kontratuaren indarraldian esleitzen zaizkien kontratu oinarrituetan hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, 60.000 euroko behin betiko bermea eratu beharko dute, lehenengo kontratu oinarrituaren esleipendun direnean.

Berme hori 5 egun balioduneko epean eratu beharko da, DTK-k horretarako egindako berariazko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan jasotako kontzeptuetarako izango da, ondorio horietarako artikulu hori aplikatu beharrekoa izango baita.

Bermea jartzeko SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetako edozein erabil daiteke eta ez da beharrezkoa izango Gordailu Kutxa Orokorrean jartzea.

Abal gisa ematen bada, Agiri honi atxikita doan **4. eranskinean** jasotako ereduari lotuko zaio.

Bermea eratu dela egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira.

Esleipendunari eskatu dakizkiokeen zigor edo kalte ordainak bermea baliatuz gauzatzen badira, esleipendunak bermea birjarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, betearazpen egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua iraungitzeko arrazoi batean sartuko da.

Bermearen itzulketa SPKLren 111. artikuluan xedatutakoari jarraituz egingo da, ondorio hauetarako artikulu hori aplikatu beharrekoa baita, behin berme epea amaitzen denean eta kontratistak bere kontratuzko obligazio oro betetzen duenean.

Bermearen itzulketa egiteko beharrezkoa izango da erakunde kontratatzailearen aldeko txostena.

Klausula honetan aurreikusita ez dagoenerako, SPKLren 106. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoa izango da aplikagarria, ondorio hauetarako artikulu horiek aplikagarriak izango baitira.

10. Esparru Akordioan onartzeko dokumentazioa aurkeztea

10.1. Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuratzea

Pleguak eta dokumentu osagarriak eskuragarri izango dira lizitazioa iragartzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan, DTKren kontratatzaile profilean.

10.2. Aurkezteko bitartekoak

Esparru akordiorako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko da, RDLSEren 61. artikuluan eta SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. atalean ezarritako betekizunekin bat etorriz.

Dokumentazioa eta proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, data zifratzea eta baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean daude adierazita, honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus

10.3. Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea:

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea **hogeita hamar egun** naturalekoa izango da, lizitazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera (EBAO) bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

10.4. Artxibo bakarraren edukia

Lizitatzaileek artxibo elektroniko bakarra sartu beharko dute, eduki honekin:

1. Esparru akordioan parte hartzeko eskaera, AKPAren **2. eranskinaren** arabera.

2. **1. eranskinean** adierazitako dokumentazioa, bertan ezarritako ordenaren arabera.

DTK-k eskubidea du egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko, soil-soilik lizitatzaileek emandako informazioa benetakoa eta zehatza dela egiaztatzeko edo informazio horren edukia argitzeko.

11. Aurkeztutako eskabideen Ebaluazio Batzordea

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du, eta Batzorde hori kide hauek osatuko dute:

1. DTK-ko zuzendari teknikoa
2. DTK-ko Kontabilitateko burua
3. DTK-ko zuzendaritza laguntzailea

12. Dokumentazioa irekitzea eta esparru akordioa onartzea

Esparru akordioan onartzeko dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, DTK-ko Ebaluazio Batzordeak garaiz eta behar bezala kalifikatuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta, zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzemanez gero, gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari akats edo omisio horiek zuzentzeko, eta lizitatzaileari ohartaraziko zaio behin betiko baztertuko dela emandako epean dokumentazioa zuzentzen ez bada.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak edo omisioak zuzenduta, eta lizitatzaileen nortasuna eta gaitasuna egiaztatuta, Ebaluazio Batzordeak aurkeztutako eskabideei buruzko txosten objektiboa igorriko dio Kontratazio Organoari, eta onartu beharrekoak proposatuko dizkio eta gaitasun eta kaudimen baldintzak eta atxikitzeko konpromisoa ez betetzeagatik onartuak ez direnak baztertuko ditu.

Egindako guztia dagokion aktan jasoko da. Akta horretan ebaluazioaren emaitza eta gorabeherak jasoko dira.

Kontratazio Organoak, Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, eskatutako baldintzak betetzen dituzten lizitatzaile guztiak esparru akordioan onartzea erabakiko du, eta gainerako lizitatzaileei, modu arrazoituan, esleipenaren emaitza jakinaraziko die.

Esleipena Kontratazio Organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie.

13. Esparru akordioaren hobekuntza eta formalizazioa

Esparru akordioa formalizatzen denean hobetuko da.

Formalizatu aurretik, bertan onartutako lizitatzaileek, hala badagokio, Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa legez eratu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, lizitatzaile esleipendunak izaera hori duenean, eta bertan aldi baterako enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da, esparru akordiotik eta, hala badagokio, horren arabera esleitzen diren kontratuetatik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoarekin.

Esparru akordioa onartutako lizitatzaileekin formalizatuko da, RDLSEren 73.2 artikuluan aipatzen den 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Esparru akordioa eskritura publikoan formalizatu ahal izango da, baldin eta esleipendunek hala eskatzen badute, eta haien kontura izango dira eskritura egilesteak ekarritako gastuak. Kasu horretan, DTK-ri eskritura publikoaren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat emango zaizkio, formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Esleipendunen bati egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazitako epean formalizatu ezin bada, DTK-k kontratua iraungitzea erabaki ahal izango du.

14. Esparru Akordioaren aldaketa

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du RDLSEren 111. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Hala dagokionean, esparru akordioaren aldaketa RDLSEren 112. artikuluan jasotako baldintzetan argitaratuko da.

15. Esparru Akordioa iraungitzea

Esparru akordioa iraungitzeko arrazoi izango dira SPKLren 211. artikuluko, b), d), f), g) eta i) letretan adierazten direnak (berariaz aplikatzekoak dira) eta, oro har, kontratuko betebeharretako edozein ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bai eta RDLSEren 113. artikuluan aurreikusitako edozein arrazoi ere.

Atal honetan aurreikusitako arrazoiagatik edo legez bidezkoak diren beste arrazoi batzuengatik esparru akordioa iraungitzen bada, iraungipena automatikoki gauzatuko da, DTK-k enpresari horretarako hartutako erabakia jakinaraztea beste betekizunik gabe.

Horrez gain, 16., 17. eta 24. baldintzetan aurreikusitako baldintzetan kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik kontratu oinarritua iraungitzeak kontratistarekin esparru akordioa iraungitzea ekar dezake, DTK-k hala nahi izanez gero.

Enpresa bati egotz dakiokeen arrazoiren batengatik esparru akordioa iraungitzeak enpresari berari baino ez dio eragingo, hau da, DTKrekin esparru akordioa sinatu duten gainerako enpresekin esparru akordioak indarrean jarraituko du baldintza guztietan.

16. Esparru akordioaren esleipendunen eskubideak

Esparru akordioaren esleipendunek posta elektronikoz kontsultatuak izateko eskubidea izango dute, Agiri honetan ezarritako moduan, esparru akordioan oinarrituta esleitu nahi duten erregai hornidurako kontratu bakoitza esleitzeko eskaintza ekonomikoa aurkezteko.

17. Esparru akordioan oinarritutako kontratuen esleipena eta formalizazioa

Esparru akordioa indarrean dagoen bitartean, Kontratazio Organoak, DTK-k unean-unean dituen erregai beharrak kontuan hartuta, esparru akordioa izenpetu duten enpresa esleipendunak deituko ditu kontratu oinarritu bakoitzaren esleipenerako eskaintzak aurkeztu ditzaten, prezioa izanda eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra, prezio txikienari esleituko baitzaio.

Kontratu oinarritu bakoitzeko, esparru akordioa izenpetu duten enpresa esleipendun guztiei eskatuko zaie, posta elektronikoz eta **2. eranskinean** horretarako aurrez adierazitako helbidea erabiliz, kontratua esleitzeko eskaintza egin dezaten.

Ondorio horietarako, Kontratazio Organoak bidaltzen dituen eskaeretan ondokoak zehaztuko dira: erregai litroko gehienezko prezio unitarioa, hornitu behar diren erregai litroak eta horniketa egiteko data eta ordu maximoa.

Eskaera horretan, zeina eskaera bidaltzen zaien lizitatzaileek onartu behar duten irakurketa baieztapenarekin igorriko den, DTK-k jatorri zehatz bateko gasolioa

hornitzeko eskaintzak ez direla onartuko espresuki adierazi ahal izango du, baldintza hori eskaintza ekonomikoa eskatzeko idazkian zehatz-mehatz jasota.

Lizitatzaileei eskaera igortzen zaien egun berean, eta 12:00ak baino lehen, lizitatzaileek euren eskaintza ekonomikoak aurkeztu eta bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, iromero@dbus.es eta contabilidad@dbus.es helbideetara. Mezu elektronikoa irakurri dela baieztatzeko eskatuko da. Kontratista berandutu egiten bada eskaintzaren aurkezpenean, kontratu oinarritua kanpo geldituko da.

Eskaintzak hornitutako erregai litroko prezio unitarioa zehaztu beharko du. Eskaintzako prezioaren barruan ulertuko da sartuta daudela kostu guztiak, garraio gastuak eta edozein motatako zergak, BEZa izan ezik, hori aparte adieraziko baita. Halaber, hornitutako gasolioaren jatorria adierazi behar da eskaintzan eta ez dira inola onartuko baztertuko direla espresuki adierazitako jatorriak dituzten hornidurak aurkezten dituzten eskaintzak, Baldintza honen laugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Horren jarraian, eskaintza eskaera egin eta horiek jaso diren egun bereko 12:30ean, jasotako eskaintza guztiak une berean egiaztatuko dira, eta une horretan lizitatzaile bakoitzak eskatutako irakurketa baieztapena egingo da.

Jarraian, DTK-ko Ebaluazio Batzordeak ebaluazioa egingo du eta esleitze proposamena bidaliko dio Kontratazio Organoari. Eskaintzan prezio merkeena jarri duen lizitatzailearen aldeko proposamena izango da. 13:00ak aurretik DTK-k kontratua esleituko du eta posta elektroniko bidez (mezua hartu dela baieztatzeko eskaerarekin) kontratistari eta gainerako lizitatzaileei formalki jakinaraziko die esleipena. Kontratistak berehala *(gehienez ere ordubete balioduneko epean)* bidali beharko dio DTKri esleipenaren jakinarazpena jaso izanaren baieztapena, eta, horrekin batera, esleitutako horniduraren baldintza zehatzak ere bidaliko dira.

Kontratistak ez badu berehala esleipena jaso izanaren baieztapena egiten, baieztapena egiteko gehienezko epea ordubete baliodunekoa izanik (bere ordutegi egiaztatuaren arabera) esleipenaren jakinarazpena bidali denetik, ulertuko da kontratuaren ez betetzea gertatzen ari dela, eta DTKren esku egongo da kontratua iraungitzea eta kontratua hurrengo enpresari esleitzea, eskaintzak sailkapenean duten ordenaren arabera (eta horrela hurrenez hurren), Agiri honetako 27. Baldintzan aurreikusitako ondorioekin. Bata bestearen atzetik egindako esleipenak, egon badira, aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera jakinaraziko dira. DTK-k ez balu hartuko indargabetzearen aukera, baieztapena egiten berandututako ordu bakoitzeko 250 eurokoa izango da zigorra, betiere eragindako kalte-galerei metatuz.

Kontratazio Organoak erabakitako esleipena lehendabizikoa bada kontratistarentzat, DTK-k Agiri honen 9. Baldintzan jasotako bermea jartzeko eskatuko dio.

Esleipendun gertatzen denaren eskaera eta eskaintza, halaber, jakinarazpenak eta baieztapenak dituzten mezu elektronikoak, izango dira kontratua, beste dokumenturik formalizatu beharrik gabe.

Esparru akordioaren esleipendun diren enpresetatik batek ere ez badu kontratu oinarritu jakin baterako eskaintzarik aurkezten edo, kontratua enpresa bakar batekin izenpetu bada, esleipendun bakar horrek eskaintzarik aurkezten ez badu, kontratua esleitu gabekotzat joko da, eta indarrik gabe geratuko da esparru akordioan kontratu oinaritu zehatz horren gainean aurreikusitakoa.

18. Hornidurak entregatzea eta jasotzea eta hornidura gauzatzeko epea

Ondasunak entregatzea eta jasotzea izango dira kontratu oinarrituekin lotura izanik egindako hornidurak.

Kontratista behartuta dago erregaia DTK-k eskaintza ekonomikoaren eskaeran adierazitako gehieneko epean eta orduan hornitzera. Hornidura bukatzean, kontratista behartuta dago, halaber, hornigailuaren gunea aurkitu zuen bezala uztera (ordena eta garbitasun egoera txukunean). Gasolioa deskargatzean, garraiolariak Espainiako lurraldean salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeko eragiketak arautzen dituen otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuaren jarraibideak bete beharko ditu. Era berean, garraiolaria DTK-ko instalazioetan dagoen bitartean, enpresaren barneko zirkulazio arauak errespetatu beharko dira, seinaleztapenaren arabera.

Ondorio horietarako, horniduraren entrega egin behar zen unetik 24 ordu baino beranduago egin bada, DTK-k bi aukera izango ditu: entregan berandutzeagatik dagokion zigorra jartzea, Agiri honetako 24. Baldintzan aurreikusitakoaren arabera eta kontratistari berandututako ordu kopuruaren berri emanda; edo kontratua bertan behera uztea, Agiri honetako 24. Baldintzan jasotakoaren arabera, eta hurrengo enpresari esleitzea, eskaintzak sailkapenean duten ordenaren arabera. Azken hori gertatzen bada, lehen 24 orduetan izandako berandutzeari dagozkion zigorrak ere eskatuko dira.

Kontratista behartuta dago Organo Administratiboen aurrean horniduraren ondorioz egin beharreko tramiteak eta gestioak egitera.

19. Kontratu oinarrituen prezioa eta prezioaren ordainketa

Kontratistari ordainduko zaiona izango da kontratu oinarritu bakoitzean hornitutako erregai litro guztiei kontratu oinarritu bakoitzaren esleipendunak litroko eskainitako prezio unitarioa aplikatuz.

Kontratistak prezioa eskuratzeko eskubidea izango du, aurretik indarreko araudiaren arabera dagokion faktura igorrita eta DTK-k faktura balidatu ondoren.

DTK-k erregaia hornitu zen egunetik 20 eguneko epean ordainduko du faktura, betiere kontratistak zegokion faktura igorri badu eta fakturak DTK-ren oniritzia badu.

20. Kontratu oinarrituen prezioak berrikustea

Kontratu oinarrituen prezioa ez da berrikusiko.

21. Aseguruak

Kontratu bakoitzaren esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, erantzukizun zibileko poliza bat izenpetuta eduki beharko du, kontratua betetzearen ondorioz hirugarrenek zein DTK-k berak izan ditzaketen kalte pertsonalen edota kalte materialen ordainetarako. Aseguratutako zenbatekoa, gutxienez, 500.000 eurokoa izango da eta kontratuak irauten duen denbora guztian egongo da indarrean.

DTK-k edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari polizaren prima ordaindu izanaren egiaztagiria eta kontratatutako poliza egunean izatearen egiaztagiria edo justifikanteak.

22. Kontratu oinarrituen arduraduna

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du; beraz, hari dagokio lanak nola gauzatzen ari diren gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala ematen ari dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, erakunde kontratatzaileak emango dizkion eskumenen barruan.

Jarraibide horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira KONTRATISTArentzat.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan ahalko da, DTKri lotua edo kanpokoa.

Kontratuaren arduradunak bere ahalmenak baliatu zein ez, kontratista ez da kontratuaren xedea behar bezala gauzatzetik salbuetsita egongo, akatsak DTKren agindu zuzen baten ondorio izan direnean eta kontratistak erreserba idatziz berariaz adierazi duenean izan ezik.

Kontratuaren gauzatze aldiko edozein unetan, arduradunaren ordez beste bat jarri ahal izango da, eta kontratistari ordezpen horren berri emango zaio idatziz.

DTK-k, kontratuaren arduradunaren bidez, kontratua behar bezala gauzatzen dela zainduko du, eta, horretarako, bilerak egingo ditu kontratistak izendatutako solaskidearekin, egokitzat jotzen duen aldizkakotasunarekin.

23. Kontratu oinarrituak gauzatzea

Esparru akordioan oinarrituta esleitzen diren kontratuak kontratistaren arriskura eta menturara gauzatuko dira.

Kontratu oinarritu bakoitza Agiri honetako Baldintzen, DTK-k egindako eskaeraren eta esleipendunaren eskaintza ekonomikoaren arabera gauzatuko da, eta DTK-k akordioaren interpretaziorako kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

Kontratista behartuta dago kontratua gauzatzeko kudeatzaile solaskide bat atxikitzera, kontratuaren xedearen eremuan gutxienez 3 urteko esperientzia duena eta 24 orduetan aurkitzeko moduan dagoena. Hura ordezteko, beharrezkoa izango da DTK-k aldez aurretik, berariaz eta idatziz baimena ematea.

Era berean, kontratistak berehala erantzun beharko dio hornidurarekin zerikusia duen edozein gorabeherari.

Kontratista, kontratu oinarritu bakoitzerako, behartuta dago hornitutako produktuaren jatorria adieraztera.

Kontratistak DTK-ren eskura eduki beharko du, kontratuak irauten duen bitartean, esleipendunaren zisternetan utzitako gasolioa banatzen duen enpresak erregaiaren kalitateari buruz egindako analisien emaitza.

Era berean, kontratistak gutxienez 6 hilabetez gorde beharko ditu hornitutako erregaiak aplikatzekoa den araudi sektoriala betetzen duela egiaztatzen duten kalitate analisiak.

Aurreko bost paragrafotan jasotako betebeharrak funtsezko kontratu betebehar gisa konfiguratzen dira, eta horiek ez betetzea kontratua iraungitzeko arrazoia izango da, DTK-k hala nahi izanez gero.

Kontratista izango da DTKri zein hirugarrenei, zuzenean zein zeharka, kontratu hau betetzeak dakartzan eragiketen ondorioz eragindako kalte eta galera guztien erantzulea.

Kontratistaren kontura izango dira hornidura behar bezala gauzatzeko behar diren lizentzia, onespen eta baimen guztiak. Halaber, hornidura betetzeko enpresak egin beharreko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, bai eta tasak eta zerga mota guztiak, jarduera egiteagatik legokiokeen zerga, eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzetik erator daitekeen beste edozein ere.

Horniduraren xede diren ondasunak entregatzeko eta garraiatzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratista behartuta egongo da lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia betetzera.

24. Kontratu oinarrituak berandu eta akatsez gauzatzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada jakinarazpena jaso izana berresteko (epea, ordu baliodun bat) eta/edo hornidura entregatzeko (hornidura egin behar zuen unetik 24 ordu baino gehiagoko epea), edo kontratatutako prestazioak akatsekin gauzatu izan balitu, DTK-k kontratua iraungi ahal izango du, Agiri honetako 274. Baldintzan ezarritako eran, edo gauzatzen jarraitzen utzi, baina, azken kasu horretan, kalte eta galerengatik dagozkion kalte-ordainez gain, 250 euro ordaindu beharko dio DTKri berandututako ordu bakoitzeko, eta, akatsekin gauzatzea gertatu bada, 250 euro horiek akatsak irauten duen ordu bakoitzeko izango dira. Nolanahi ere, kontratua iraungiz gero, hurrengo enpresari esleitu ahal izango zaio kontratua, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, edo eskaintza ekonomikoa egiteko beste eskaera bati ekin ahal izango zaio berehala.

Dagokion hornidura egin ondoren kontratistak ez badu uzten, DTK-ren irizpidearen arabera, hornigailuen eta/edo instalazioen eremua oso ondo ordenatuta eta garbituta, DTK-k gutxienez 200 euro ordainaraziko dizkio kontratistari, gunea leheneratzeko egiten diren garbiketa gastuengatiko zigor gisa.

Kontratua gauzatzen jarraitzea aukeratuta ere, berandutzearen edo akatsekin gauzatzearen ondoriozko ez-betetzeak irauten duen bitartean, DTK-k edozein unetan erabaki ahal izango du kontratua iraungitzea, lehen aipatutako ondorioekin.

Zigorrak eta kalte-ordainak kontratu oinarritu zehatzagatik edo kontratistarekin egindako beste edozein kontraturengatik hari osorik edo partzialki ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduta gauzatuko dira. Zenbateko horietatik kendu ezin direnean, judizioz kanpoko erreklamatuko zaio zenbateko horietatik gorako zenbatekoa.

25. Kontratu oinarrituen azpikontratazioa

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu dezakete prestazioaren zati bat egitea, RDLSEren 107. artikuluak xedatzen dutenari lotuta.

26. Kontratu oinarrituen aldaketa

Kontratazio Organoak kontratu oinarrituak aldatu ahal izango ditu RDLSEren 111. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Hala dagokionean, kontratu oinarrituen aldaketa RDLSEren 112. artikuluan jasotako baldintzetan argitaratuko da.

27. Kontratu oinarrituen iraungitzea

Kontratu oinarrituak iraungitzeko arrazoi izango dira SPKLren 211. artikuluko, b), d), f), g) eta i) letretan adierazten direnak (horientzat berariaz aplikatu beharrekoak dira) eta, oro har, kontratuko betebeharretako edozein ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bai eta RDLSEren 113. artikuluan aurreikusitako edozein arrazoi ere.

Baldintza honetan kontratua iraungitzeko aurreikusitako kasuetako edozeinetan, iraungitzea automatikoa izango da, eta nahikoa izango da DTK-k kontratistari bere erabakia modu frogagarrian jakinaraztea.

Ondorio horietarako, gauzatze egoeraren Akta idatzi beharko da. Akta horretan zehaztuta geratuko da zenbat erregai litro entregatu eta jaso diren, DTKren oniritziarekin, eta zenbat ez diren entregatu edo jaso, bai eta zergatik ez diren jaso ere.

Ondoren, DTK-k beste lizitazio bat hasi ahal izango du esparru akordioaren beste esleipendunekin, hornidura kontratatzeko, kontratutik geratzen den denboran, Agiri honetako 17. baldintzaren kasuan bigarrenei esleitzeko aukerari kalterik egin gabe.

Egokitzat jotako kontratuaren likidazio ekonomikoa gero egiteari kalterik eragin gabe egingo da hori guztia, jarraian xedatzen denaren arabera.

Atal honetan aurrez ikusitako edozein arrazoi edo legez egokia izan daitekeen beste edozein arrazoi dela-eta kontratua iraungitzetik eratorritako erantzukizun ekonomikoak kontratua benetan iraungi eta dagokion dokumentazioa entregatu ostean likidatuko dira; hori ez da eragozpena izango DTK-k kontratua gauzatzen jarraitzeko.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik iraungitzen bada, kontratu oinarrituaren prezioaren %50aren pareko zenbatekoa ordainduko zaio DTKri, hark nahita, ordaindu beharreko kalte-galeren ordainez gain.

Bi zenbatekoak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharko dizkion zenbatekoetatik kenduko dira, edo, zenbateko horietatik kendu ezin direnean, zenbateko horietatik gorako zenbatekoa judizioz kanpo erreklamatuko da aparte.

Esparru akordioan oinarrituta esleitutako kontratua kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik iraungitzeak kontratista esparru akordiotik bertatik baztertzea ekar dezake, DTK-k hala nahi izanez gero. Hori guztia, dagozkion kalte-galeren ordainak alde batera utzi gabe, DTK-k horiek erreklamatuko ditu-eta.

28. Konfidentzialtasunaren betebeharra

Kontratistak errespetatu egin beharko du esparru kontratua edo esparru kontratu horren babespean sinatutako kontatu oinarrituak betetzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta Agirian edo esparru akordioa formalizatzeko dokumentuan edo kontratuetan informazio hori konfidentzialtzat jo bada, edo daukan izaeragatik informazio konfidentzial gisa tratatu behar bada.

Betebehar horrek 12 hilabete iraungo du, informazio hori eskuratzen den unetik.

Kontratazio Organoak ezin izango du enpresariek eman eta enpresariek konfidentzialtzat jotako informazioa zabaldu. Ondorio horietarako, lizitatzaileek konfidentzialtzat jotako dokumentazioaren zerrenda sartu beharko dute gutun-azalean.

1. ERANSKINA. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.1.) Gutun-azalaren edukia jasotzen duen dokumentua, zenbakiz adierazia.

1.2.) Lizitatzailearen jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak eta, hala dagokionean, baita bere ordezkaritza ahalmena egiaztatzen dutenak ere:

- Enpresariak pertsona juridikoak badira, jarduteko gaitasuna dokumentu hauek aurkeztuta egiaztatuko da: eratze dokumentu edo eskritura, Estatutuak edo eratze ekitaldia. Dokumentu horietan zehaztuta egongo dira jarduera erregulatzen duten arauak eta, kasuan kasu, pertsona juridiko mota bakoitzaren arabera dagokien Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko dute.

- Europar Batasuneko estatuetako enpresari ez-espainiarrak badira, jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresari atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsuletxeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bidez justifikatu egin beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak antzeko egoeran Administrazioarekiko eta SPKLren 5. artikuluan zerrendatzen direnen pareko ente, entitate eta erakunde publikoekiko kontratazioetan enpresa espainiarrak ere onartzen dituela, modu berdin-berdinean.

- Proposamenak beste norbaiten izenean sinatu edo agertu direnek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta horretarako ahalorde askietsia aurkeztu beharko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan xedatutakoaren arabera hala behar duenean, edo, hala badagokio, dena delako Erregistro Publikoan, pertsona juridikoaren arabera.

- Operadore ekonomikoen elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresariek elkartea eratzen dutenen izenak eta ezaugarriak eta elkarteko kide bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, eta esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Elkartea eskritura publiko bidez formalizatuko dute, kontratua esleitzen zaien unetik aurrera

Operadore ekonomikoen elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresari horiek solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen

ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua amaitu artean. Dena dela, ahalorde mankomunatuak ere eman ahal izango dira, zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Dokumentazio hori guztia jatorrizko dokumentuetan edo kopia eran aurkeztu beharko da behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek aukera izango dute inskripzioaren indarreko egiaztagiriaren kopia aurkezteko, 1.2 atal honetan eskatutako dokumentazioaren ordez. Egiaztagiri hori Erregistroaren arduradunak egin beharko du, eta, berarekin batera, lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, non lizitatzaileak dokumentuan jasotako baldintzak aldatu ez direla adieraziko baitu.

1.3.) Erantzukizunpeko adierazpena, **5 Eranskineko** ereduaren arabera, non lizitatzailea SPKLaren 71. artikuluan (RDLSEren 30. artikuluak horra eramaten baitu berariaz) ezarritako kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela ziurtatuko baita.

1.4.) Lizitatzaileak indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

1.5.) Erregai hornidurako jarduerari lotutako dokumentazio espezifikoa:

- Petrolio produktuen handizkako operadoreen jardueraren hasiera Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari jakinarazi izan zaiola egiaztatzen duen agiria.

1.6.) Agiri honen 7. Baldintzan adierazitako gaitasun ekonomiko eta finantzarioa badituela egiaztatzen duten agiriak.

Zehazki, lizitatzailearen urteko negozio bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

- Merkataritza Erregistroan onartutako eta utzitako urteko kontuak, enpresaria aipatu erregistroan inskribatuta badago, eta. horrela ez bada, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden bakarkako enpresariek euren urteko negozio bolumena egiaztatzeko Merkataritza Erregistroan legeztatutako inbentario liburuak eta urteko kontuak erabiliko dituzte.

- Urteko negozio bolumena adierazteko lizitatzaileek izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena.

1.7.) Dagokionean, adierazpenen notario akta, lizitatzaileak, exijitutako ahalmena edo gutxieneko bitarteko humanoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste entitate batzuen bitartekoetan oinarritu behar badu, **3 Eranskinean** emandako ereduaren arabera.

1.8.) Atzerriko enpresek Espainiako edozein mailatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratzeko berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute, esparru akordioaren esparruaren ondorioz eta esparru akordioan oinarritua esleitzen diren kontratuen ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako. Adierazpen horretan, era berean, uko egingo diote lizitatzaileari dagokiokeen atzerriko barruti jurisdikzionalari.

2. ERANSKINA. ESPARRU AKORDIOA SINATZEKO ESKAERA EREDUA

…… jaunak/andreak, …… helbidea duenak eta …….. NAN zenbakia duenak, bere izenean / ……. ordezkatuz (…….. helbidea eta NAN edo IKF zenbakia .....) jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoarekin, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUren automozioko gasolioa (A klasea) erregulartasunez hornitzeko enpresari batekin edo batzuekin esparru akordio bat egiteko prozedura irekia arautuko duten Administrazio Baldintza Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagututa,

ADIERAZTEN DU

Lehenengoa.- DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUri automozioko gasolioa (A klasea) hornitzeko gai den enpresari batekin edo batzuekin esparru akordio bat egiteko prozedura irekia arautuko duten Administrazio Baldintza Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen duela, eta berariaz onartu eta errespetatzen duela erabat.

Bigarrena.- Indarrean dagoen araudian erregaiaren hornidurarako eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak betetzen ditu.

Hirugarrena.- DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUri automozioko gasolioa (A klasea) hornitzeko gai den enpresari batekin edo batzuekin esparru akordio bat egiteko prozedura irekian parte hartzeko eskatzen du, hornidura horretarako baldintza jakin batzuk finkatuta eta haien artean esparru akordio horretan oinarritutako kontratu zehatzak esleituta**.**

Laugarrena.- Posta elektronikoko helbide hau izendatzen duela oinarritutako kontratu bakoitzaren eskaintza ekonomikoaren eskaerak jasotzeko: […]

.....(e)n, 2023ko .....aren .....(e)an

3. ERANSKINA. ADIERAZPENEN NOTARIO AKTARAKO EREDUA, LIZITATZAILEAK, EXIJITUTAKO KAUDIMENA EDO GUTXIENEKO GIZA BALIABIDE BATZUK ATXIKITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA BITARTEKOETAN OINARRITU NAHI BADU.

…… jaunak/andreak, …….. NAN zenbakia duenak, ……. enpresaren legezko ordezkaria den heinean, IFZ zenbakia ....., …….kontratatzeko …….. (enpresa lizitatzailearen izena) enpresa lizitatzaileak parte hartu duen lizitazioaren baldintza guztiak osorik ezagutzen dituela adierazten du, eta borondate ezeztaezina adierazten du, lizitatzailea esleipendun ateratzen bada, horren esku jartzeko kontratua gauzatzeko beharrezko bitartekoak, Kode Zibilaren 1257.2 artikulua berariaz onartuta, ordezpena edo aldaketa egiteko DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUren berariazko baimena beharko delarik.

Idatzi hau DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUren aurrean aurkeztearen ondorioa izango da aipatu konpromisoa onartzea, lizitatzaile hori esleipendun gertatzen bada.

……(e)n, 2023ko…….ren……(e)an
[Izenpea]

4. ERANSKINA. ABAL EREDUA

[…] entitateak (kreditu entitatearen edo elkarren bermerako sozietatearen izen soziala), […] IFK zenbakia duenak, egoitza […] helbidean duenak (jakinarazpenak eta errekerimenduak jasotzeko), eta bere izenean ,[…] (ahaldunaren izen-abizenak), ekitaldi honetan behartzeko behar adinako ahalordeekin, dokumentu honetako beheko zatian aipatzen den ahalordeen askiespenarekin, honi ABALA ematen dio: […] [Abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala), IFK: […], […](r)en aurrean, […] euroko abalarekin, esparru akordioaren ondoriozko eta […]ren kontratu oinarrituen ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizun pean, adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen dituela. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, eskusio eta zatiketa onurari berariaz uko eginda eta […]ren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAk abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

…….-n, 2019ko ……ren …….a

[Izenpea]

5. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

“.....jaunak/andrea k, ... helbidea duenak, ... NAN zenbakia, ... telefono zenbakia eta ..... e-maila dituenak, jarduteko duen ahalmen eta gaitasun juridiko osoa duela, bere izenean (edo .... ordezkatuz, ... helbidea eta ..... NANa edo IKF zenbakia [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan hartuta], TRANBIA KONPAINIA SAU automozioko gasolioa (A klasea) erregulartasunez hornitzeko kontrataziorako esparru akordioa arautuko duten Administrazio Baldintza Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagututa,

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA: Eskaintza hau aurkeztu den egunean ez dago sartuta kontratatzea debekatzen dion inolako egoeratan, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 71. artikuluan ezartzen duenaren arabera, horren bidez ekarri baitira ordenamendu juridiko espainiarrera 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak.

BIGARRENA: Berariaz onartzen dira erakunde kontratatzaileak gardentasun instituzionala ematea (esleipendun izanez gero) lizitatze, esleitze eta gauzatze prozesuetan sortutako datu guztiei, prozesuak erabat bukatu arte.

……(e)n, 2023ko…….aren……..(e)an